- 24.- KONTRATATZEKO BALDINTZA BEREZIAK
- 25.- AZPIKONTRATAZIOA
- 26.- OBRAK EGITEA ETA IKUSKATZEA
- 27.- LANAK ORDAINTZEA ETA PREZIOAK BERRAZTERTZEA
- 28.- KONTRATUA ALDATZEA
- 29.- KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)
- 30.- PENALIZAZIOAK
- 31.- BERME-EPEA ETA FIDANTZA-ITZULERA
- 32.- EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA
- 33.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA
- 34.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK

IV. KAPITULUA. - IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

- 35.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

V. KAPITULUA. - HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

- 36.- UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEA
- 37.- LAN-, GIZARTE- ETA GARDENTASUN-IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA

**BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK HONAKO OBRA
HAUEK EGITEKO: BERGARAKO ANGIOZAR AUZOKO BEHEKO
KALEKO ZATI BATEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK.**

I. KAPITULUA. - KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA ETA BEHARRAK

Kontratuaren xedea da Bergarako Angiozar auzoko beheko kaleko zati batean irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea, “Sestra Ingeniería y Arquitectura SL”k egindako proiektu teknikoaren arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluan dioenari jarraituz, obretako exekuzio-proiektuan dagoen memorian honako hauek justifikatu dira: erakundearen xedeak; kontratuaren bidez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura; premiak asetzeraren begira xedearen eta edukiaren egokitasuna; eta kontuan hartutako beste edozein motatako faktoreak.

CPV kodea: 45233252-0

2.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

Kontratatzeko prozedura irekia eta arrunta da, irizpide-aniztazunez.

3.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA

Kontratuaren balio estimatua, guztira, 110.139,57 eurokoa da (% 21eko BEZ barne).

4. LIZITAZIO-OINARRIAREN AURREKONTUA

Obra honen kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 110.139,57 eurokoa da (% 21eko BEZ barne).

5.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa izango da kontratuaren adjudikaziotik irtengo dena, eta partida independentean agertu beharko du BEZa. Kontratuaren prezioaren barruan sartuta egongo dira aplikatu beharreko edozein motatako zerga, tasa eta kanonak; eta baita plegu honetan jasotako betebeharrak betetzearren adjudikatzailearentzat sor daitezkeen gastu guztiak ere.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Ez dagokio prezio-berraztertzerik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 103. artikulua araberaz.

7.- KREDITUA EGOTEA

Espresuki adierazten da kontratuak administrazioari sortarazten dizkion betebeharrak ekonomikoak betetzeko adinako diru-izendapena badagoela.

Obra honen finantzaketa honako aurrekontu-partida hauen kontura egingo da:

1.0600.601.151.00.01.2016 partida.....	94.275,60 €
1.0600.601.151.00.01.2018 partida.....	15.864,00 €

8.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA.

Obrak egiteko epea hiru hilabeteko epean bukatuko da, tokiaren zuinketa-akta sinatzen denetik kontatzen hasita.

9.- BEHIN BETIKO FIDANTZA

Adjudikazio-hartzaileak, kontratua sinatu aurretik edo kontratua sinatzerakoan, dagokion behin betiko bermea ezarri beharko du, hau da, adjudikazio-zenbatekoaren (BEZ kanpo) % 5aren parekoa.

10.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Plegu honetan xedatutakoaren arabera, Kontratatzailearen Profilean kontratu honi buruz argitaratuko den informazioa honako helbide elektronikoan eskuratu ahal izango da: www.bergara.eus.

II. KAPITULUA. - KONTRATATZEKO PROZEDURA

11.- KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Kontratu honi aplikatu ez zaionez Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77. artikuluan jasotako sailkapenaren betekizuna, eskaintzaileek kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatu beharko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 87.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

12.- GAITASUN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Eskaintzaileek gaitasun tekniko eta/edo profesionala egiaztatu beharko dute, gutxienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 88. artikuluan jasotako moduetakoren batean.

Ondoren zehazten da eskatutako gaitasuna ordeztu ahal izango duen enpresa-sailkapena:

B taldea, 1 azpitaldea, a kategoria (2015eko azaroaren 5aren aurretik lortua)

B taldea, 1 azpitaldea, 1 kategoria (2015eko azaroaren 5etik aurrera lortua)

13.- LIZITAZIOAN PARTE HARTZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Dokumentazioa gutun-azal nagusi itxi baten barruan aurkeztuko da eta, gutun-azalaren kanpoaldean, enpresa lizitatzaillearen izena eta ondorengo inskripzioa agertuko dira: “Angiozar auzoko beheko kaleko zati batean irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea”.

Gutun-azal nagusiaren barruan, berriz, beste hiru gutun-azal joango dira, behar bezala itxita hauek ere. Gutun-azalok kanpoan ondorengo inskripzioak izango dituzte:

- 1. gutun-azala: Administrazio-agiriak.
- 2. gutun-azala: Dokumentazio Teknikoa, balio-judizio baten menpeko kuantifikazioa duten adjudikazio-irizpideei buruzkoa.
- 3. gutun-azala: Dokumentazio Ekonomikoa, eta automatikoki baloratu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzaren barruan, berriz, ondorengo agiriak sartu beharko dira:

▪ **1. gutun-azala**

1. gutun-azalaren azpititulua izango da “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”, eta 1. gutun-azalaren barruan agiri hauek sartuko dira:

a) Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektronikoa honetan eskura daiteke:

“<https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>”.

Halaber, udalaren Kontratatzaillearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatzailleek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri

hori elkarteak osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatuzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.

d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko.

e) Azpikontratatzea: Lizitatuzaileek eskaintzan adierazi beharko dute kontratuaren zatiren bat azpikontratatzea aurreikusten duten eta zein, eta zehaztu egin beharko dute horren zenbatekoa eta lana egingo duten azpikontratisten izena edo enpresa-profila –gaitasun profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuz– (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 215-2a) artikulua).

Kontratazio Mahaiak edozein unetan justifikazio dokumentala eskatu ahal izango die lizitatuzaileei, beren erantzukizunpean baldintzak betetzen dituztela adierazi dutena egiaztatzeko.

Lizitatuzaileak gehienez ere bost egun baliouduneko epean aurkeztu beharko du eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontaktzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatuzaileak eskaintza erretiratu egin duela, eta prozeduratik kanporatua izango da.

- 2. gutun-azala

2. gutun-azalaren azpiztitulua izango da “Dokumentazio Teknikoa, balio-judizio baten menpeko kuantifikazioa duten adjudikazio-irizpideei buruzkoa”.

Gutun-azal honetan sartuko da ondoren zehazten den dokumentazioa, obraren azterketari buruzkoa eta lanen programa zehazten duen memoria teknikoa.

Eskaintzek ondoren azaltzen diren atalak garatu beharko dituzte, eta horietan baloratuko dira azterketaren zuzentasuna eta xehetasun-maila, eta baita lizitazio-xede den kontratuari egokitzen zaion ere; horrela neurtuko da zein eskaintzak proposatzen duen kalitate-prezio erlaziorik onena:

- Proiektuaren azterketa, lanaren zailtasun nagusienak antzemanda eta egin beharreko lanen planteamendu orokorra eginda (gehienez ere, 5 orri DIN A4 alde bietatik –letratamaina gutxienez 10–, eta 2 plano DIN A3).

- Lanen programa eta proposatutako programazioa, Gantt diagramaren bitartez. Jarduketa bakoitzari dagozkion errendimenduen justifikazioa, kontuan hartuta epe partzialak eta osoak eta eskaintako giza baliabideak eta baliabide materialak (gehienez

ere DIN A3 bat, alde batetik (Gantt diagrama) eta 3 orri DIN A4, alde bietatik –letra-tamaina gutxienez 10).

Inoiz ez da sartuko gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa. Sartuz gero, lizitatuzailea prozedura honetatik kanpo geratuko da, eta ez da irekiko 3. gutun-azala.

- 3. gutun-azala (I. Eranskinaren arabera)

a.- Eskaintza ekonomikoa, I. eranskinean jasotako ereduari jarraituz, obra-unitate ezberdinen zerrenda banakatuarekin batera (obra-unitate ezberdinen zerrenda banakatua aurkezten ez bada, unitate ezberdinen prezioak gutxitu egingo dira prezio osoa gutxitu den portzentaje berean). Ez da inolaz ere onartuko ereduari jarraitu gabe idatzitako proposamen ekonomikorik.

Kontuan izan beharko da esleitutako diru-kopuruan “Segurtasun eta Osasun” atalak ezin duela inolako murrizketarik izan, hau da, proiektuan duen diru-kopuru bera izan beharko duela (urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak, eraikuntza-lanen gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera).

b.- Berme-epearen proposamena (I. eranskinean zehaztua).

Gutun-azal honetan ez da sartu behar “2” gutun-azalari dagokion dokumentaziorik. Dokumentu horietako bat “3” gutun-azalean sartzen bada, horiek ez dira baloratuko.

Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

14.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Prozedura ireki honetan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, asteleheneetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean, deialdi honi buruzko iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta 26 egun naturaleko epean (pleguak kontsultatu ahaliko dira web-gune edo atari informatiko honetan: www.bergara.eus). Epe hori larunbatean, igandean edo jaiegunean bukatuko balitz, hurrengo egun balioduneko 13:00etan bukatuko da.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira; Horrelakoetan, enpresa lizitatuzaileak Postetxean eskaintza zein egunetan sartu den justifikatu beharko du eta kontratazio-organoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko dio faxez (943 77 91 56 zenbakira) klausula honetako lehenengo idatzian jasotako epea amaitu baino lehen. Baldintza bi horiek pilatu ezean ez da proposamenik onartuko, proposamenak aurkezteko epea amaitzeko eguna baino beranduago jasotzen bada. Dena den, jarritako epea igaro eta

hurrengo bost egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inolaz ere onartuko.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta horiek aurkezterakoan enpresariak plegu honetan xedatutakoa oso-osorik onartzen duela ulertuko da.

15. LIZITAZIOAN BALORATUKO DIREN ALDERDIAK

Administrazioak, lizitazioa hutsik laga ezean, kontratuak adjudikatuko ditu, eta horretarako, kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza zein den erabakitzeko, ondorengo adjudikazio-irizpideak erabiliko dira.

Adjudikazioa egiteko irizpide orokor moduan, obrak ezarritako baldintzen eta epeen barruan eta egoki egingo direla ziurtatzeko ematen diren garantiak baloratuko dira orokorrean. Horrela, ondorengoak baloratuko dira:


- a. Prezioa..... 0 puntutik 55era
- b. Memoria eta exekuzio-prozedura..... 0 puntutik 55era
- c. Bermea..... 0 puntutik 10era

- a. Eskaintza ekonomikoa gehienez ere 55 punturekin baloratuko da. Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta:

- "Bi" berdina edo txikiagoa bada A1 baino, $P_i = 40 \times B_i / A_1$
- "Bi" handiagoa bada A1 baino, eta txikiagoa A2 baino, $P_i = 40 + 10 \times (B_i - A_1) / (A_2 - A_1)$
- "Bi" handiagoa bada A2 baino, $P_i = 50 + 5 \times (B_i - A_2) / (B_{\max} - A_2)$

Non:

- a. P_i : "i" zenbakidun eskaintzaren puntuazioa
- b. B_i : "i" zenbakidun eskaintzaren baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko (adib. baja % 10ekoa bada, $B_i = 10$)
- c. B_{\max} : gehieneko baja, portzentaje-unitateetan
- d. A_1 : $0.25 \times B_{\text{med}}$
- e. A_2 : $0.50 \times B_{\text{med}}$
- f. B_{med} : onartutako eskaintzek egin duten batez besteko baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko.



- b. Exekuzio-proposamena gehienez ere 55 punturekin baloratuko da, betiere plegu honetako 4. artikuluan zehaztutakoaren arabera, 2. gutun-azaleko erreferentzian xehatuta, eta honela banakatuta:
- 0-35 puntu: Proiektuaren azterketa, lanaren zailtasun nagusienak antzemandak, egin beharreko lanen planteamendu orokorra eginda, eta oinezkoen eta trafikoaren joan-etorrietan izango dituen eraginak murrizteko azterketa eginda (gehienez ere 5 orri DIN A4 alde bietatik –letra-tamaina gutxienez 10–, eta 2 plano DIN A3).
 - 0 - 20 puntu: Lanen programa eta proposatutako programazioa, Gantt diagramaren bitartez. Jarduketa bakoitzari dagokion errendimenduen justifikazioa, kontuan hartuta epe partzialak eta osoak eta eskainitako giza baliabideak eta baliabide materialak (gehienez ere DIN A3 bat, alde batetik (Gantt diagrama) eta 3 orri DIN A4, alde bietatik –letra-tamaina gutxienez 10).
- c. Bermea: Gehienez ere 10 punturekin baloratuko da. Horrenbestez, bi puntu emango dira berme-epea gainditzen duen sei hileko bakoitzeko. Hau da, 10 puntuak lortu ahal izateko, berme-epea 30 hilabetez luzatu beharko da.

16.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak ireki aurretik, Mahaiak 1. kartazalean aurkeztatutako dokumentazioa sailkatuko du eta, horietan akats materialik antzeman ez gero, Mahaiak hiru laneguneko epea eman ahal izango du lizitatuzaileak akats horiek zuzendu ditzan.

Kontratazio Mahaiak proposamenak Udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre plaza, 1), proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo ostegunean, 10:15etan.

Ekitaldi horretan, jendaurrean, soil-soilik onartutako proposamenei dagozkien “2” gutun-azalak irekiko dira. Ondoren, onartutako proposamenak Udaleko Zerbitzu Teknikoei bidaliko zaizkie; eta zerbitzu tekniko horiek, exekuzio-proiektu teknikoa idatzi duen enpresarekin batera, proposamenok baloratuko dituzte plegu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzailearen profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

“2” gutun-azalean jasotako eskaintzak baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak proposamenei “3” gutun-azala irekiko du (eskaintza ekonomikoa), ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi horretarako deialdia ere Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

MAHAIBURUA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

- Udaleko lehenengo alkateordea, edo hark eskuordetuko duena.
- Kontuhartzailea, edo hark eskuordetuko duena.
- Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.

IDAZKARIA

- Udalbatzako Idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.

Mahaiaren bileretan parte hartu ahal izango dute Udalean erantzukizun teknikoa duten pertsonak, Mahaiak aholkularitza emateko hala eskatzen duenean. Mahaiak, halaber, bidezko irizitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

17.- ADJUDIKAZIOA

Lehenagoko ekintzak egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuileari eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala –originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztuz– hamar eguneko baldioduneko epean –errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita–, kontratazio-mahaiak baloratu eta kalifikatu dezan:

a) Lizitatuilearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkartzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordetza.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakian, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatuile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatuilearen erantzukizunpeko aitortpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrak ez direla aldatu.

Eskakizun hau egiaztatuko da aseguratzaileak emandako ziurtagiriaren bidez –bertan jaso beharko dira aseguratutako arriskuak eta zenbatekoak eta aseguruaren epemugaren data– eta, dagozkion kasuetan, asegurua izapidetzeko, luzatzeko edo berritzeko konpromiso loteslearen agiriaren bidez.

c) Gaitasun teknikoaren egiaztagiria, plegu honetako 2.2.2 artikuluan jasotakoari jarraituz.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratu-xedeari dagokion epigrafean alta emanda dagoela frogatzeko, lizitatuileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiria aurkeztea, edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela zuzenean egiaztatzeko baimena ematea.

f) Kontratua formalizatzerakoan justifikatu beharko du gutxienez 300.000 euroko kapitala duen erantzukizun zibileko poliza kontratatu eta ordaindu duela (erantzukizun zibil orokorra, patronalekoa eta gurutzatua); aseguru horrek erantzungo baitu beste pertsonen eragin dakizkiekeen kalteengatik, betiere adjudikazioaren xede diren lanen exekuzioak

dirauren bitartean bere langile, enplegatu edo menpeko iraunkor nahiz noizbehinkakoen egintzetatik edo bere makinaria eta tresnariengatik edo egindako lanak lortzeagatik sortu badira. Hori justifikatzeko, II. eranskinean jasotako ereduari jarraituz aseguru-etxeak egindako ziurtagiria aurkeztuko da. Era berean, enpresa eskaintzailearen ordezkartzan, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, kontratuaren xede den obraren erantzukizun zibilararen polizaren indarraldiari buruzkoa, III. eranskinaren ereduaren arabera.

g) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztagiria.

h) Behar balitz, lan-arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatuak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatuari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

18.- ESKAINTZEN BALIOAK NORMALAK BAINO BAXUEGIAK IZATEA

Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla-eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak hauek dira:

Eskaintza ekonomikoa, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko, % 20tik behera jaistea.

Neurrigabekotzat edo anormaltzat jotako proposamenei Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikulua aplikatuko zaie.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 107.2 artikuluen arabera, adjudikazio-hartzailearen eskaintza hasiera batean anormaltzat jotzeko presuntzioaren barruan sartu bada, ezarri beharko duen guztizko bermea izango da eskaintako bukaerako prezioaren ehuneko hamarra (% 10).

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesdunari entzun eta gero, eta adjudikazio-hartzaileak eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

III. KAPITULUA. - KONTRATUA SINATZEA ETA OBRAK EGITEA

19.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA OBRAK EGITEKO EPEA

19.1.- Kontratua formalizatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 153. artikuluan jasotakoaren arabera egin beharko da. Horrenbestez, kontratuen formalizazioa argitaratu egin beharko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost eguneko epean –kontratua sinatzen denetik–, kontratazio-organoaren Kontratutzailearen Profilean (154-1 art.).

- 19.2.- Kontratuaren iraupena lanen behin betiko adjudikazioa jakinarazten denetik hasi eta behin betiko fidantza itzultzen den artekoa izango da.
- 19.3 Obrak egiteko epea (hobekuntza-lanak barne, horrelakorik balego) bi hilabeteko epean bukatuko da, tokiaren zuinketa-akta sinatzen denetik kontaktzen hasita.
- 19.4 Obren tokiaren egiaztapena (zuinketa-akta) hilabeteko eguneko epean egingo dute – kontratua sinatzen denetik aurrera– obrak egingo dituen enpresaren ordezkariak, obra-zuzendariak edo Bergarako Udalak izendatutako teknikariak. Obrak hasi aurretik, enpresa adjudikazio-hartzaileak lantokia irekitzeari buruzko jakinarazpena eta baliabide prebentiboaren izendapena aurkeztu beharko ditu udaletxean.
- 19.5 Adjudikazio-hartzaileak ordaindu beharko du lanaren bi iragarki-kartel egitearena. Kartel hori udal zerbitzu teknikoek ezarritako jarraibideen arabera egin beharko du.

20.- ZUZENDARI FAKULTATIBOA ETA KONTRATUAREN ERANTZULEA

Administrazioak zuzendari fakultatibo bat izendatuko du, eta hura izango da kontratuaren xede den obra zuzen egiten dela egiaztatzeko, koordinatzeko, zaintzeko eta ikuskatzeko arduraduna; eta adjudikazio-hartzaileari egokituko zaizkio, berriz, lanetako zuzeneko zuzendaritzaren berezko ardurak eta baita burututako obra eta bertan utzitako materialak kontrolatu eta zaintzearenak ere.

Kontratu-arduradunaren eskumenak zuzendari fakultatiboak izango ditu, eta Bergarako Udalak kontratatuko du; beraz, hura kontratatzeko gastuak udalaren kontura izango dira.

21.- SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO KOORDINATZAILEA

Bergarako Udalak erabakiko du zein enpresa izango den segurtasun eta osasunaren koordinazioaren zuzendari eta arduraduna, eta kasu honetan ere udalak hartuko ditu bere gain kontrataziotik eratorritako gastuak.

22.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA

Adjudikazio-hartzaileak Segurtasun eta Osasun Plan bat egingo du, eta bertan ikertu, aztertu, garatu eta osatuko dira segurtasun eta osasun azterlanean edo oinarrizko azterlanean jasotako aurreikuspenak. Plan horretan sartuko dira, horrelakorik balegokio, kontratistak proposatu ditzakeen prebentzio-neurri alternatiboen proposamenak, dagokion justifikazio teknikoarekin; hala ere, neurri horiek ezingo dute ekarri azterlanean edo oinarrizko azterlanean aurreikusitako babes-mailen murrizketarik.

Segurtasun eta Osasun Plana, dagokion segurtasun eta osasunaren arloko koordinatzailearen txostenarekin batera, kontratazio-organoari bidaliko zaio, onartua izan dadin lanak hasi baino lehen.

23.- OBRAK SEINALEZTATZEA

Kontratistak, bere kargura, honako seinale hauek ipini beharko ditu: obraren sarbidea adieraztekoak, lanetan dagoen eremuan zirkulazioa adieraztekoak, eta lanak direla-eta egon

daitezkeen balizko arrisku-puntuak adieraztekoak, bai eremu horretan, bai inguru mugakideetan, bai inguru hurbiletan.

Horretaz gain, bere kontura jarri beharko ditu obrak identifikatzeko kartelak, zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideen arabera.

24.- KONTRATATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratastak zein azpikontratastak kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak.

Lizitatuzaileek, esleipendun izanez gero, kontratuaren xede den jarduera gauzatu dute langileei aplikatzeko hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko dute.

Era berean, kontratua esleitu eta gero, derrigortuta egongo dira langileei egiazki ezartzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatutako informazio guztia ematera.

Kontratua gauzatu bitartean, iraunaldi osoan zehar, adjudikazio-hartzaileak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

25.- AZPIKONTRATAZIOA

Lanak azpikontratatu gero, azpikontratazioa egokitu egin beharko zaio 9/2017 Legeak (azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena) 215, 216 eta 217. artikuluetan ezarritakoari, eta baita indarrean egon daitekeen legediaren gainontzeko zehaztapenek ezarritakoari ere. Horren xehetasuna 1. gutun-azaleko proposamenaren sartu beharko da.

26.- OBRAK EGITEA ETA IKUSKATZEA

- 26.1 Obrak egiterakoan estu-estu jarraituko dira klausula administratibo partikularren plegu honetan, baldintza teknikoen pleguan eta plegu horren oinarri den proiektuan zehaztutakoak eta baita, proiektua interpretatuz, obra zuzendaritzak kontratastari idatziz eman diezazkiokeen jarraibideak ere. Jarraibide horiek ere, kontratastarentzat, derrigor bete beharrekoak izango dira.
- 26.2 Plegu honen bidez adjudikatzen diren obrak egitean inolako kalterik, okerrik edo istripurik izanez gero, kontratastarena izango da horien erantzukizuna. Erantzukizun hori garantia-epea betetakoan amaituko da. Ondorio horretarako, Erantzukizun Zibileko poliza aurkeztu beharko dute, plegu honetako 2.8 artikuluan jasotakoari jarraituz.
- 26.3 Bergarako Udalak bere teknikarien bitartez lanen martxa ikuskatzeko eta zaintzeko ahalmena izango du.

27.- LANAK ORDAINTZEA ETA PREZIOAK BERRAZTERTZEA

- 27.1 Obren adjudikazio-hartzaile den kontratistak benetan egin dituen obren ordainketa jasotzeko eskubidea du, aurrez adostutako prezioen arabera, hartarako onartu den proiektu teknikoari jarraituz eta organo kontratatzaileak baimendutako aldaketekin.
- Horrela, kontratistak obra-ziurtagiriak eman beharko ditu, eta horiek, aurrez Hirigintzako Batzorde Informatzaileak oniritzia emanda, organo aginpidedunaren onarpena beharko dute. Ordainketa ondorengo 30 egunetan egingo da.
- 27.2 Lanen exekuzioa kontratistaren gain eta kontura burutuko da, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, ezinbesteko kasuetan izan ezean, eta betiere bere arduragabekeriagatik ez izatekotan.
- 27.3 Ez da egongo prezio-eguneraketarik.

28. - KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla-eta, Bergarako Udalak kontratua aldatzea izango du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada, eta betiere lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez baditu.

29.- KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)

Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaileak baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan zehaztutako kasuak eta baldintzak.

30.- PENALIZAZIOAK.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 193. artikulua arabera, kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa igarotakoan burutu gabe baditu epe horretan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu, kasua aztertu ondoren: kontratuari amaiera ematea; edo obrak burutu arte berandutzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea, BEZik gabeko kontratu-prezioaren 1.000 euroko 0,60 euroko proportzioan (hau da, obrak entregatu arte berandutzen den egun bakoitzeko 66,08 euroko diru-zigorra).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak BEZik gabeko kontratu-prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organok aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

31.- BERME-EPEA ETA FIDANTZA-ITZULERA

Obrak bukatu ondoren, obra-harrera egingo da, azaroaren 9ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 111-5 artikulua arabera, eta 6 hilabeteko berme-epea irekiko da azken egiaztapena egin baino lehen. Salbu eta enpresa adjudikazio-hartzaileak beste berme-eperen bat eskaintzen badu; horrelakoetan, abalaren ezarpena eta itzulpena

berme horri egokituko zaio. Azken egiaztapena onartu ondoren, ezarritako fidantza itzuliko da.

Itzulpenaren erabakia hartu beharko da eta interesatuari jakinarazi beharko zaio berme-epea bukatu eta bi hilabeteko epean.

32.- EZKUTUKO AKATSENGATIKO ERANTZUKIZUNA

Berme-epea bukatu ondoren, obra aurre-egoeran suertatzen bada eraikuntzan eragindako ezkutuko akatsengatik, kontratistak erantzun egin beharko die hamabost urteko epean zehar sortutako kalte eta galerei –obra-harrera egiten denetik kontaktzen hasita–.

33.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean jasotako mugen barruan eta betiere bertan ezartzen diren baldintzen eta ondorioen menpe, kontratazio-organoak eskumena du kontratu administratiboak interpretatzeko, kontratuok betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik horiek aldatzeko, kontratua gauzatzetik kontratistari egotzi dakioken erantzukizuna aitortzeko, kontratua eteteko, kontratuari amaiera emateko, eta amaiera horren eraginak zehazteko.

Era berean, kontratazio-organoak ahalmena du kontratua gauzaten den bitartean kontratisten jarduketak ikuskatzeko, lege honek kontratu-mota bakoitzarentzat ezarritako ondorio eta mugekin (azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak 190. artikuluan).

Dagozkion erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari, eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

Kasu horietan entzun egingo zaio kontratistari.

34.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 211. eta 245. artikuluetan jasotakoak.

IV. KAPITULUA. - IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

35.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honek eta beroni erantsitako agiri guztiek kontratu-izaera izango dute. Plegu honen eta gainontzeko kontratu-dokumentu horietako edozeinen artean kontraesanik balego, plegu hau nagusituko da.

Nahiz eta ez ezagutu kontratuaren klausuletako zehaztapen guztiak, edo gainontzeko kontratu-agiriak, edo hitzartutakoa betetzeko aplikagarri diren jarraibideak edo araudia, horrela izanda ere, horrek ez du adjudikazio-hartzailea salbuesten haiek bete behar izatetik.

Adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen (aurrerantz SPKL) 156. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu honek administrazio-izaera du eta plegu honen arabera gertatu eta adjudikatuko da, eta horren arabera ondorioak eta amaiera izango ditu. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek izango dira aplikagarri: azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea –Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak (2014ko otsailaren 26koak) Espainiako ordenamendu juridikora egokitzen dituen–; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua –Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua –Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duena–, eta indarrean egon daitekeena 817/2009 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren; eta, era osagarrian, administrazio-zuzenbidearen gainontzeko arauak aplikatuko dira eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Kontratu honen ondorioz aldean artean sor daitezkeen gai eztabaidagarriak erabakitze eskuduna Administrazioarekiko Auzietarako Ordena Jurisdikzionala izango da, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 27-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

V. KAPITULUA. - HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK

36.- UDALEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK BETETZEA

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalak Euskararen Erabilera Sustatzeko Planean jasotako hizkuntza-irizpideak jarraitu beharko ditu; bereziki, hizkuntza paisaiako elementuei (errotulu, argibide, herritarrentzako ohar...) dagokienez.

Horrenbestez, errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz jarriko dira piktogramaz lagunduta, piktogramaren bitartez ulergarriak direnean. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz jarriko dira, mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean: euskarazko eta gaztelaniazko grafia antzekoa...

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira euskarari lehentasuna emanez, bai kokalekuaren aldetik eta bai neurriaren aldetik ere.

Halaber, euskarazko testuen egokitasuna zaindu beharko da eta horretarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da.

Udalaren ohiko lan-hizkuntza euskara izanik, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira normalean, bai ahoz eta bai idatziz.

Udaleko Bulego Teknikoa eta, behar izanez gero, Euskara Zerbitzua arduratuko dira hizkuntza-irizpideon gaineko zehaztasunak azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

37.- LAN-, GIZARTE- ETA GARDENTASUN-IZAERAKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEA

Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak, eta, bereziki, Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboa –betiere uneoro Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako azken testuari dagokionean–.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak lanak hasi baino lehen aurkeztu egin beharko du bertan parte hartuko duten langileen zerrenda, eta baita enpresa azpikontratatuari dagozkien kideen zerrenda ere; eta egiaztatu egin beharko dute Gipuzkoako Eraikuntzaren eta Obra Publikoen Hitzarmen Kolektiboaren menpe daudela.

Era berean, 19/2013 Legeak (abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) 4. artikuluan jasotakoaren arabera, kontratuaren adjudikazio-hartzailea behartuta dago administrazioari behar den informazio guztia ematera –hark errekeritu ondoren–, arau horretan bertan edo udal eremuan onartu daitezkeen arauetan ezarritako betebeharrak bete ahal izateko.

I. ERANSKINA
PROPOSAMEN-EREDUA

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

NAN zk.a: _____ (kopia erantsi da).

Honen izenean: _____

IFZ: _____,

AZALTZEN DU

LEHENENGOA: BERGARAKO ANGIOZAR AUZOKO BEHEKO KALEKO ZATI BATEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK EGITEARI buruzko lizitazio honetako baldintza administratibo partikularren plegua eta proiektu teknikoa ezagutzen dituela, eta bertako edukia onartu eta horien arabera gauzatzeko konpromisoa bere gain hartzen du ondorengo diru-kopuruan: _____, gehi _____ (BEZari dagokiona) (letraz eta zenbakiz).

Era berean, **ZINPEAN AITORTZEN DUT:**

- a) Eskaintzailea egunean dagoela bai zerga-betebeharretan bai Gizarte Segurantzakoetan.
- b) Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela, eta plegu hauen xedeko lanak burutzeko ahalmen juridikoa eta behar besteko bitartekoak dituela.
- c) Eskaintza egiterakoan kontuan hartu dituela indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak arlo hauetan: enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta ingurumenaren babesa.
- d) Konpromisoa hartzen duela edozein momentutan betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzeke agiriak ekartzeko, kontratazio-organoak eskatuz gero, eta, edonola ere, adjudikazio-proposamena bere aldekoa bada, adjudikazioa egin aurretik ekarriko dituela.
- e) Legez ezarritako ondorio juridikoekin egindakotzat hartzeke moduko mota guztietako errekerimendu, komunikazio edo jakinarazpenak egiteke, datuak honako hauek direla jakinarazten du:

Harremanetarako pertsona.....

Helbide soziala.....

P.K.: Udalerria.....

1. Telefonoa:

Posta elektronikoko helbidea:

- f) Adjudikazio-hartzaile izanez gero, onartutako pleguen eta proiektu teknikoaren betebeharrak eta baldintza guztiak estu-estuan jarraituz burutuko dituela lanak.

BIGARRENA: Berme-epea luzatzeko konpromisoa hartzen dut, hilabetez.

(data eta proposamen-egilearen sinadura)

II. ERANSKINA
PROPOSAMEN-EREDUA

**ERANTZUKIZUN ZIBILAREN ESTALDURAREN ZIURTAGIRIA, OBRA
HAUETARAKO: BERGARAKO ANGIOZAR AUZOKO BEHEKO KALEKO ZATI
BATEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK:**

Jauna/Andrea:
Ondoren aipatzen den aseguru-etxeko edo aseguru-artekaritzako ahaldua da edo horren
ordezkaritzan dihardu. Aseguru-etxea edo aseguru-artekaritza:

Pertsona horrek honako hau ZIURTATZEN DU:

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxearen eta aseguru-
hartzailearen artean sinatu denak– obra hauetatik erator daitekeen erantzukizun zibila (orokorra,
patronala eta gurutzatua) estaltzen duela.

Poliza zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Estalitako lanak: Bergarako Angiozar auzoko Beheko Kaleko zati batean irisgarritasuna
hobetzeko lanak.

Eta horrela jasota gera dadin, eta obra horren estaldura ziurtatzearen ondorioetarako, ziurtagiri
hau ematen dut 2018koaren(e)an.

III. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA, HONAKO OBRA HAUETAKO ERANTZUKIZUN ZIBILAREN POLIZAREN INDARRALDIARI BURUZKOA: BERGARAKO ANGIOZAR AUZOKO BEHEKO KALEKO ZATI BATEAN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK.

Jauna/Andrea:

Enpresa honen izenean eta ordezkartzan:

**KONTRATAZIO-MAHAIBURUAREN AURREAN, BERE ERANTZUKIZUNPEAN
HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:**

Ondoren adierazitako zenbakia duen polizak –adierazitako aseguru-etxeak sinatutakoak eta jarraian jasotzen diren lanen erantzukizun zibila (orokorra, patronala eta gurutzatua) estaltzen duenak– indarrean iraungo duela aipatutako obrak bukatu eta haien harrera egin arte.

Poliza zenbakia:.....

Aseguru-etxea:.....

Estalitako lanak: Bergarako Angiozar auzoko Beheko Kaleko zati batean irisgarritasuna hobetzeko lanak.

DATA ETA SINADURA